

B2

2. BATXILERGOA AUKERAGAIAK

✓ ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA: FRANTSESA

Batxilergoan bigarren hizkuntza frantsesa ikasgaia ikasleen komunikaziorako gaitasuna hobetzeko pentsatua dago.

METODOLOGIA

Proiektuen bidez lantzen ditugu unitate ezberdinak.

HIZKUNTZA ESKOLA

Lehenengo Batxilergoan B1 atera dutenekin B2 maila prestatzen hasten gara.

B1 mailako azterketa egin ez zutenek, kurtso honetan egiteko aukera ere badute.

EMAITZAK

Egia esan, oso maila linguistiko polita lortzen dute institutuko bukaerarako eta Hizkuntza Eskolako emaitzak beti izaten dira oso onak.

USEKO PROBA

Ikasleek USEko frogan Frantsesa **atzerriko hizkuntza** bezala aukera dezakete; hau da, Ingeleraren ordean Frantsesa egin dezakete.

✓ OSASUNERAKO JARDUERA FISIKOAK

Ikasgai honen bidez ikasleak, ariketa fisikoaren bidez, bere osasuna landu eta hobetuko du.

Ariketa fisikoa eta kirola osasungarriak izan daitezten, ez du balio edozer moduz aritzea. Gorputzaren funtzionamendua eta kirol entrenamenduaren oinarriak ezagutu behar dira. Ikasgai honek bi zati ditu:

Lehenik, ikasleak modu egokian nola prestatu ikasiko du. Horretarako, eduki hauek landuko ditu, bai praktikoki nola teoria landuz:

- Oinarrizko gaitasun fisikoak: Indarra, erresistentzia, malgutasuna eta abiadura. Hau, kirol zikliko eta aurkari zuzenekoetan landuko da.
- Lesio prebentzioa: Horkatila, belauna, gerri-core eta sorbaldetako lesioak. Lesio orokorrak eta kirol espezifikokoak.
- Elikadura eta hidratazioa. Jarraibide orokorrak eta ariketa fisikora aplikatua.

Ikasgaiaren bigarren zatian, ikasle bakoitzak aukeratuko du klasean praktikatu nahi duen kirol edo ariketa fisiko bat eta praktika hori modu egokian egiteko, programazio bat prestatuko du, non ikasitako guztia aplikatu beharko duen.

✓ INFORMATIKA ETA PROGRAMAZIOA

Zergatik aukeratu informatika eta programazioa?

- Hizkuntza berri bat ikasiko duzu, **programazio-hizkuntza**. Modu honetan, ez duzu pentsamendu logikoa, egituratua eta sormena bakarrik suspertuko, gainera teknologiak erabiltzen duen hizkuntza, hau da inguratzen zaituen munduko hizkuntza ulertuko duzu
- Etengabe hazten ari den ezagutzetan sartuko zara.
- Erronka berriei aurre egiten laguntzen duen irakasgai praktikoa da.
- Orainaldia eta etorkizuna da.